



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
IKERKETA SAILA
Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Delegación Territorial de Bizkaia

**“HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA: desesko-
latzea eta eskola absentismoa eraztea Bizkai Lurraldean” AGIRIAN AURREI-
KUSTEN DEN SEGIMENDUKO BATZORDEAREN TXOSTENA**

IKASTURTEA: 2005-2006

**HEZUNTZA SAILA (Delegación Territorial de Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza)
FORU ALDUNDIA (Gizarte Ekintza Saila)
EUDEL**

ÍNDICE

	Página
1. SARRERA	3
2. PROGRAMAREN HELBURUAK	4
3. DATUAK JASOTZEA	4
3.1 Honako hitz hauen definizio operatiboa: <i>deseskolatzea, eskola absentismoa, absentismo metatua eta absentismo zuzendua</i>	4
3.2 Datuak jasotzeko jarraitutako prozedura	5
4. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEKO ARAZOAREN DIMENT-SIOA BIZKAI LURRALDEAN	6
4.1 Oinarrizko Hezkuntza (Lehen Hezkuntza eta DBH)	6
4.2 Haur Hezkuntza	9
4.3 Absentismo eta deseskolatzearen banaketa Ikuskaritzako eskualdeka	10
4.4 Ikastetxe eraginak	10
4.5 Datuen ebaluazioa	11
5. PARTE-HARTZAILEEN IRITZIA	11
5.1 2006ko apirilaren 5ean egindako ekarpenak	12
5.2 Ikastetxeetako zuzendaritza taldeen ekarpenak	13
5.3 OGZ eta beste udal zerbitzu batzuen ekarpenak	15
5.4 Haur Zerbitzuaren ekarpenak (Bizkaiko Foru Aldundia)	17
6. ONDORIOAK	18
7. HOBETZEKO PROPOSAMENA	24
8. ESKER ONAK	27
9. ERANSKINAK	28
9.1 - I. Eranskina: apirilaren 5ean jasotako ekarpenen orria	29
9.2 - II. Eranskina: Ikastetxeetako zuzendaritza taldeen, OGZ edo beste udal zerbitzu batzuen eta Foru Aldundiaren ekarpenen orriak.	31

1. SARRERA

“Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: deseskolatzea eta eskola absentismoa erauztea Bizkaia Lurraldean” agirian aurreikusten den segimenduko Batzordeak joan diren bi ikasturteetan bi txosten landu zuen Programa horretan sartuta dauden hiru Erakundeen jokabideari burua: Hezkuntza Saila (Bizkaiko Lurralde Ordezkarria), Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila) eta EUDEL (Euskal Udalen Elkartea). Txosten horien bidez aukera dago absentismo eta deseskolatzearen dimentsioa jakiteko Oinarrizko Irakaskuntzako ikasleetan (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) Bizkaia Lurraldean, baita Haur Hezkuntzan ere (3-6 urte). Halaber, sartuta dauden lagunen iritzia jasotzen da eta horri esker hobetzeko proposamenak ezarri ahal izan ziren.

Segidan aurkezten den txostenak 2005-06 ikasturtea hirugarren urtea da Programa ezarri zenez geroztik– zera nahi du: absentismo eta deseskolatzearen ebaluazioa jakinarazi, aurreko ikasturteetan jasotako datuek erreferentzia gisa baio baitute konparaketak egiteko asmoz. Txosten honetan, aurreko ikasturtean egin bezala, “absentismo metatu” eta “absentismo zuzendu” hitzak jasotzen dira, baita arazo horren dimentsioaren banaketa ere eskualdeka, udalerriak biltzen diren eskualdeetan hain zuzen. Aurreko guztiak balio izan digu problema hobeki fokalizatuta edukitzeko eta horren ondorioz, eraginkorrakoak izateko gainditzeko esku-hartzean; izan ere, orian ere baderitzogu Ikastetxera joateari sarri-sarri huts egiteak eragozpen handia jartzen diola ikasleen garapen pertsonal, sozial eta akademikoari, eta geroan marjinazio zein baztertze sozialeko egoerak sortzen dituela.

Gainera, azken hiru urteotan bizitako esperientziak, praktika onak aztertzeak eta ikasketa alderatuak argi utzi dute eskola absentismoa beste arazo batzuen “detektatzaile” on gisa funtzionatzen dela; hor daude tratu txarra, berdinen arteko erasoak, osasun arazoak, besteak beste. Horrexek sendotzen gaitu arazoa aurkitu orduko ongi jokatzeko.

Sartuta dauden pertsonen iritzia, hots, Programa hori bultzatu duten hiru Erakundeei dagokiena, txosten honetan ere jasotzen da. Iritzi hori oso argi eta sendoa da era koordinatu batez lanean jarraitzeko premia agertzean, hezkuntzarako eskubide eraginkorra bermatzeko xedez, eta, horren ondorioz, eskubide hori erabili ez izanak eragin litzakeen desberdintasuneko egoerak saiheste aldera. Xede horri ere nahi zioten erantzun Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Sailburuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Ahaldunak eta EUDELeke Gizarte Kontuen arduradunak, 2003ko apirilean *“Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: deseskolatzea eta eskola absentismoa erauztea Bizkaia Lurraldean”* agiria aurkeztu zutenean, hiru Erakundeek ados onartuta.

Helburuak lortzea egiaztatzen jarraitze aldera eta sartuta dauden Erakundeetarako bakoitzari hobetzeko urratsak eskaini ahal, Programak berak aurreikusten du segimenduko Batzorde bat egotea. 2005-2006 ikasturteari dagokion txosten honek nahi du batzorde bakoitzari emandako eginkizunak betearazi.

2. PROGRAMAKO HELBURUAK

Hona hemen programa hori martxan jarri ostean lortu nahi ditugun helburuak:

- Derrigorrezko eskolatzeko aldiaren adingabeen hezkuntzarako eskubidea bermatzea, eskola deseskolatzea eta absentismoa saihestuz.
- Gizarte giro baztertuetatik datozen familien jarrera bultzatzea hiru urtetik seira bitarteko adingabeak eskolatzeko.
- Familia horien eskariak lehenetsi eta saritzea hiru urtetik beherako seme-alabak Haur Eskoletan sartzea helburu dutenean.
- Arazo honen larritasunaz sartuta dauden profesionalak, gizartea oro har eta zuzenean sartuta dauden pertsonak sentsibilizatzea.
- Sartuta dauden erakundeek koordinazioz lan egitea (Justizia, Enplegu eta Gizarte-Segurantzako Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Udalak; Foru Aldundia eta Fiskaltza) deseskolatze eta eskola absentismoa prebenitu eta horren aurka esku hartzeko.
- Deseskolatze eta eskola absentismo egoera eta martxan jarritako esku-hartzeak ebaluatzea.

Txosten honetako hurrengo atalek erantzun egin nahi diete aipatutako helburuei, baina problemaren dimentsioa zehaztea azpimarratzen da bereziki, zeren hobeto ezagutua eta aukera gehiago izango baititugu esku-hartzea ahalbidetzeko, eta, azken finean, konpontzeko.

3. DATUAK JASOTZEA

3.1. Honako hitz hauen definizio operatiboa: *deseskolatzea, eskola absentismoa, absentismo metatua eta absentismo zuzendua*

Txosten honetan ekartzen diren datuak interpretatu ahal izateko deseskolatze, eskola absentismo, absentismo metatu eta absentismo zuzendu hitzen definizio operatiboa jasotzen da:

- **DESESKOLATZEA:** derrigorrezko eskolatzeko (6-16 urte) adingabeen egoera da Ikastetxe batean matrikularik formalizatu ez dietelako. Kontzeptu honetan ere sartuko da egoera hau: adingabeak justifikatu gabeko hutsegiteen %100 dagoenean, matrikulaturik egonagatik ere.

- **ESKOLA ABSENTISMO:** eskola absentismotzat jotzen da Ikastetxera joateari sarri huts egitea arrazoi justifikatu gabe, familiak berak onartuta edo bultzatuta, edota ikaslearen beraren borondatez, aurrenerabe eta nerabeak izanez gero. Kontzeptu horren definizio operatiboan absentismo tasatzat hartzen da hileko denboraldi bateko justifikatu gabeko hutsegiteen portzentajea. Txosten horretan absentismotzat jo da justifikatu gabeko hutsegiteen %20 edo gehiago. Absentismo kontzeptua desberdintasunak prebenitu eta orekatzeko gogoz aplikatuko da Haur Hezkuntzako 2. zikloko adinaz geroztik.
- **ABSENTISMO METATUA:** bitarteka jasotzen da absentismo metatuaren portzentajea ikasle absentisten artean ikasturtean zehar. Hona hemen bitarteen esangura:
 - %25: joan gabeko egunen %25eraino esan nahi du ikasturtean.
 - >%25-%50: joan gabeko egunen %25etik gora eta %50 artean ikasturtean
 - >%50-%75: joan gabeko egunen %50etik gora eta %75 artean ikasturtean..
 - >%75: joan gabeko egunen %75etik gora eta %99,9ren artean ikasturtean (ez egoteen %100 eta deseskolatzea baliokide dira).
- **ABSENTISMO ZUZENDUA:** absentista izanak absentismoko erregistroak edukitzeari uzten dioten ikasleen kopurua eta portzentajea jasotzen da 2006ko apiril, maiatz eta ekain hilabeteetan gutxienez.

3.2. Datuak jasotzeko jarraitutako prozedura

Programan ezarritako protokoloa segitu da. Hau da, hilerio bost eguna baino lehenago Ikastetxeek Hezkuntza Ikuskaritzara eta Udaletxera igorri dituzte erregistro orri beteak bertan gorago azaldutako hitzen definizio operatiboaren atabera justifikatu gabeko ez egoteen %20 edo gehiago hilerio izan duten ikasleen izenak daudela.

Erregistroak jaso ostean, Ikastetxeko ikuskariak aztertuko ditu, eta horretarako jarri den aplikazio informatikoan sartuko. Aplikazio horren diseinuari esker 2005-2006 ikasturtean zehar absentismo eta/edo deseskolatzeko erregistroren bat izan duten Ikastetxeen eta ikasleen kopurua jakingo da.

Azkenik, parte-hartzaileen iritzia ere jaso da (Ikastetxeetako zuzendaritza taldeak, Oinarriko Gizarte Zerbitzuak edo beste Udal Zerbitzu batzuk; eta Bizkaiko Foru Aldundiko Hautzaro eta Nerabezaro Zerbitzu bereziak). I. Eranskinarekin batera doaz iritzi datu horiek jasotzeko balio izan duten dokumentuak.

4. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEKO ARAZOAREN DIMEN- TSIOA BIZKAI LURRALDEAN

4.1. OINARRIZKO HEZKUNTZA (LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH)

4.1.1. Portaera absentista edo deseskolatua duten ikasleen kopuru osoa:

Absentismo eta deseskolatzeko kasuak batuta, orotara 1.135 dira.

Kopuru hori oinarrizko irakaskuntzako ikasleen %1,3 da, eta portzentaje hori aurreko ikasturtekoa bera da.

4.1.2. Portaera absentista duten ikasleen kopurua:

Orotara 1.034 ikaslek izan dute portaera absentista. Titularitate eta dauden hezkuntza zikloaren arabera, honela banatzen dira:

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHEN			DBH			LEHEN			DBH		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
24.344	443	1,8	15.759	431	2,7	27.547	59	0,2	21.058	101	0,5

4.1.3. Ikasle deseskolatuen kopurua

Deseskolatze egoeran dauden 101 ikasleak horrela banatzen dira:

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHEN			DBH			LEHEN			DBH		
Ikasleak	Deseskola.	%	Ikasleak	Deseskola.	%	Ikasleak	Deseskola.	%	Ikasleak	Deseskola.	%
24.344	28	0,1	15.759	53	0,3	27.547	5	0,02	21.058	15	0,07

4.1.4. Portaera absentista edo deseskolatua duten ikasleen kopuru osoa:

LEHENA			DBH		
Ikasleak	Absent. eta desesk.	%	Ikasleak	Absent. eta desesk.	%
51.891	535	1,03	36.817	600	1,63

4.1.5. Absentismo metatua. Ez egoteen portzentajea ikasturtean zehar

4.1.5.1. Ikastetxe Publikoak

LEHENA								
GUZ-TIRA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
443	376	84,9	52	11,7	12	2,7	3	0,7

Aurreko koadroan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten el portzentajerik handiena Ikastetxe publikoetan (%84,9) %25erainoko tartean kokatzen da.

Azken tarteko absentisten kopuruari (3) deseskolatuena (28) gehituko baldin bagenio, egoera bion portzentajea, arazo horren seinalerik larrienak, %6,6 izango litzateke.

DBH								
GUZ-TIRA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
431	282	65,4	79	18,3	31	7,2	39	9

DBHn, absentismoaren portzentajerik handiena (%65,4) ere %25erainoko tartean kontzentratzen den arren, halarik ere, hori apaldu egiten da Lehen Hezkuntzako datuen aldean. Aitzitik, absentisten kop. nabari areagotzen da (%9) azken tartean (>%75).

Lehenago bezala azken tarteko absentisten kopuruari (39) deseskolatuak (53) gaineratuko baldin bagenizkio, bi egoeron portzentajeak %19 eskuratuko luke.

4.1.5.2. Ikastetxe Pribatu Itunduak

LEHENA								
GUZ-TIRA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
59	49	83	4	6,8	1	1,7	5	8,5

Ikastetxe Publikoetan bezalaxe gertatzen da. Ikasle absentisten portzentajerik handiena (%83) lehen tartean kontzentratzen da, hau da, ikasturtean zehar metatu den absentismoa faltan %25eraino izan da.

Era berean azken tarteko absentisten kopuruari (5) deseskolatuak (55) gaineratuko bagenizkio, bi egoeron portzentajea %15,6ra jasoko litzateke.

DBH								
GUZ-TIRA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
101	50	49,5	36	35,6	12	11,9	3	3

Ikastetxe pribatu itunduetako DBHn Ikastetxe publikoetako hezkuntza maila horretarako aipatua den joera matentzen da; izan ere, ikasle absentisten portzentajerik handiena (%49,) tarterik apalenean da, eta, halarik ere, hemen ere gertatzen da areagotze garrantzitsu bat, Lehen Hezkuntzarekin alderatuz gero, absentisten kopuru eta portzentajearen hurrengo tartetean.

Azken tarteko absentistek (3) deseskolatuak (15) metatuko baldin bagenizkie, bi egonean portzentajea %17,8ra helduko litzateke.

4.1.6. Absentismo zuzendua

IKASTETXE PUBLIKOAK				IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK			
LEHEN		DBH		LEHEN		DBH	
Absentisten kop: 443		Absentisten kop: 431		Absentisten kop: 59		Absentisten kop: 101	
Zuzen kop.	%	Zuzen ko.	%	Zuzen ko.	%	Zuzen kop.	%
188	42,4	189	44	31	52,5	35	34,6

Aurreko koadroko datuek absentista izateari utzi dioten edo gutxienez ikasturteko azken hiruhilean halakoak ez diren ikasleen kopuru absolutu eta portzentajeen berri ematen digute. Absentismo zuzendu horren zioak hauexek izan daitezke: arazo hori gainditzeko instantzien esku-hartzeen eragina, edo portaera absentistak eragin duen egoeraren araberako zirkunstantzia desagertu izana, zeren eta absentismoaren definizio operatiboaren barruan sartzen baitira arazo batzuegatik justifikatu gabe egunen %20an huts egiten duten ikasleak hilabetean bakarrik izan den arren.

Datuok uzten digute arazoaren dimentsiorik larriena behatzen, hots, ikasturte osoan zehar portaera absentistari eusten dioten ikasleena, hainbat esku-hartze egon arren. Kopurua ateratzeko txosten honetako 2.1.2 ataleko koadroan esleituta dauden datuetatik aurreko koadrokoak kendu behar dira, eta 283 ikaslekoa da Lehen Hezkuntzan (%0,5) eta 308 ikaslekoa DBH (%0,8).

Portaera absentista larriagoa duten ikasleen 591 kasuei, ikasturtearen amaieran dirauten neurrian, 101 ikasle deseskolatuak gaineratuko bagenizkie, egoerok oinarritzko hezkuntzako ikasleen %0,78ri eragiten dietela jakingo genuke.

4.1.7. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara, Foru Aldundira eta Fiskaltzara bideratutako espedienteen kopurua.

	Bideratutako espedienteen kop.	% (1)	% (2)
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak	412	36,3	0,5
Foru Aldundia	21	1,8	0,02
Fiskaltza	29	2,5	0,03

(1) % absentismo eta/edo deseskolatzeko kasu guztien gainean

(2) % derrigorrezko irakaskuntzako ikasle guztien gainean.

Ministerio Fiskalak berari bideratutako 29 kasuetan esku-hartzeko protokolo bera segitu du: Familiari eta seme edo alaba absentista edo deseskolatuari deitzea, hiru hilabetean segimenduan jardutea ebaluazioa balioesteko xedez, Ikastetxeak ekarritako informazioa euren esku dutelarik. Hiruhileko segimendu horri eutsi behar zaio arazoak sendo dirauen bitartean, derrigorrezko eskolatzeari amaitu arte, eta familian bertan behera uzteko joera argia dagoenean, horrela deritzatenean, salatu egingo da gursoen jarrera gaitzesgarria.

Ikasturteon Fiskaltzara bideratutako 29 kasu horiez gain, Fiskaltzak aurreko 2004-2005 ikasturtean bideratutako beste 19ren segimenduari eusten dio.

4.2. HAUR HEZKUNTZA

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
13.718	242	1,76	14.505	15	0,10

Oharra: adin hauei dagozkien datuak ere eskaintzen dira, baina, halarik ere, erabiltzeak haurtzaroko lehenengo urteetan eskolatzeari eragitea izango du helburu bakarra, gizarte mailan baztertu samar dauden taldeen kasuetan batez ere.

4.3. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEAREN BANAKETA IKUSKARITZAKO ESQUALDEKA

Guztira	Eskualdeak			
	1	2	3	4
116.931 (1)	21.542 (%18,4)	27.868 (%23,8)	39.491 (%33,8)	28.030 (%24)
1.392 (2)	35 (%2,5)	48 (%3,4)	847 (%60,8)	462 (%33,2)
Absentismoaren indizea	%0,16	%0,2	%2,1	%1,6

- (1) *Guztizko honetan Bizkai Lurraldeko Oinarrizko Irakaskuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle guztiak zenbatzen dira. Guztizko hori Ikuskaritzako lau eskualdetan banatzen da taulak erakusten duenez: 1. eskualde Durangoalde, Lea-Artibai eta Busturialdeari dagokie. 2. eskualdea Uriberri. 3. eskualdea Bilbo eta Goi Ibaizabalari eta 4. eskualdea Ezkerralde, Meatzalde eta Enkarterriari.*
- (2) *Guztizko honetan portaera absentista eta deseskolatua duten ikasle guztiak Bizkaiko Oinarrizko Irakaskuntzan (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Haur Hezkuntzan.*

Ikus daitekeenez, eskualdeka banatzea ez da berdina, ezpada 3 eta 4. eskualdeetan biltzen da batik bat.

4.4. IKASTETXE ERAGINAK

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIVATU ITUNDUAK		
GUZTIRA	Eraginak	%	GUZTIRA	Eraginak	%
252	93	36,9	137	30	21,9

Portaera absentista eta/edo deseskolatua daukaten 6tik gora ikasle dituzten ikastetxeak

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIVATU ITUNDUAK		
GUZTIRA	Eraginak	%	GUZTIRA	Eraginak	%
252	41	16,3	137	5	3,6

Gure ustez, bigarren koadro honetako kopuru eta portzentajeek eskola absentismoaren arazok eragindako irudi errealistago bat eskaintzen dute. Lehen koadroan islatzen dira gutxienez ikasle absentista edo deseskolatu bat 2005-06 ikasturtean zehar izan duten Ikastetxe guztiak.

4.5. DATUEN EBOLUZIOA AZKEN HIRU URTEETAN

IKATURTEAK	ABSENT+DESESK OIN.HEZKUNTZA	ABSENTISMO HAUR HEZK.	IKASTETXE ERAGINAK > 6 kasu		FISKALTZARA IGORTZEA
			PUBLIKOAK	PRIBATU ITUN.	
2003-2004	1.074 (1,2%)	201 (0,76%)	38 (15,1%)	6 (4,4%)	8 (0,63%)
2004-2005	1.133 (1,3%)	197 (0,72%)	39 (15,5%)	5 (3,6%)	28 (2,5%)
2005-2006	1.135 (1,3%)	257 (0,91%)	41 (16,3%)	5 (3,6%)	29 (2,5%)

Aurreko taulak eskaintzen dizkigun datuek eboluzio urria erakusten digute segimendu horretan jardun duten hiru ikasturteetan. Aurten garrantzi handia eman zaio absentismoari haurtzaroko lehenengo urteetan, Haur Hezkuntzan bereziki, eta horrexek azalduko du agian kasu gehiago erregistratu izana, eta horren ondorioz etapa horretan absentisten kopurua eta portzentajea areagotu egin dira.

Dena delarik, datuok jakinarazten digute, aurreko ikasturteetan bezala, hezkuntza sistema-ren ikuspuntutik arazo horren dimentsioa txikia bada ere, norbanakotik gehiago dela, ze-ren eta eskola porrota eragiten duen egoera hau lagun horiek geroago gizartean baztertzearen zergatietarikoa baita. Aurrekoa UNESCOko XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordearen Txostenean (1996) islatzen da, J. Delors buru zutela:

“Muchos países, sobre todo entre los países desarrollados, padecen en la actualidad un fenómeno muy desconcertante para las políticas educativas: paradójicamente la prolongación de la escolaridad ha agravado más que mejorado la situación de los jóvenes socialmente más desfavorecidos o en situación de fracaso escolar. Incluso en los países en los que los gastos de educación figuran entre los más elevados del mundo, el fracaso y la deserción escolares afectan a una proporción considerable de alumnos. Producen una división entre dos categorías de jóvenes, que resulta tanto más grave cuanto que persiste en el mundo laboral. (...) Generador de exclusión, el fracaso escolar es en muchos casos el origen de algunas formas de violencia o de extravíos individuales. Estos procesos que desgarran el tejido social hacen que se denuncie a la escuela como factor de exclusión social y al mismo tiempo que se la solicite con insistencia como institución clave de integración o reintegración. Los problemas que plantean a las políticas educativas son especialmente difíciles; la lucha contra el fracaso escolar debe ser, por tanto, un imperativo social” (p. 61).

5. PARTE-HARTZAILEEN IRITZIA

2005-2006 ikasturtean zehar bi bider jaso da “*Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: deseskolatzea eta eskola absentismoa eraztea Bizkaia Lurraldean*” delakoan jarduten duten parte-hartzaileen iritzia. Bata “Eskola absentismoari buruzko jardunaldia”n egin zen, apirilaren 5ean eta bestea ikasturte honetan zehar absentismo eta/edo deseskolatzeko erregistroren bat izan duten Ikastetxe guztietako zuzendaritza taldeei Hezkuntza Ikuskaritza Burutzak maiatzaren 24an bidali zien idazki baten bidez eta uztailearen 24an EUDELen aldetik Bizkaiko Udal eta Mankomunitateetako Gizarte Zerbitzu eta Hezkuntza Zerbitzuei. Bizkaiko Foru Aldundiko **Gizarte Zerbitzu Saileko** Haur Zerbitzuko profesionalen iritzia ere jaso zen.

5.1. “HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA”REN SEGIMENDUKO BATZORDEARI EGINDAKO EKARPENAK APIRILAREN 5EKO JARDUNALDIAN

2004-2005 ikasturteari dagozkion txostena aurkeztutako jardunaldian egon ziren parte-hartzaileen iritziez eta Portugalete eta Bilboko Udaletako esperientzia banaz gain, ekarpeneko 23 orri jaso ziren. I. Eranskinarekin batera dagoen formularioan galdetzen zen Programan gehien balioetsi diren alderdiei buruz, gutxien balioetsi direnez eta sartu beharko lirakeen hobekuntzen gainean eta beste iradokizun batzuk izan zituzten hizpide. Hona hemen ekarpenak:

Gehien balioetsi diren alderdiak

- %78,3k gehien balioesten duena erakundeen arteko koordinazioa da, zeren eta uzten baitu lankidetzaren sistematizazioa, arazoaren erantzun integral baterako baliabide guztien hurbiltasuna eta guztien esku-hartze handiagoa.
- %43,5ek gehiago balioesten du programa eta protokoa edukitzea eskola absentismoa eramateko eta beraren segimendua egiteko.
- Hurrengo norbanako erantzunak ere jaso dira: familiei seme-alabak eskolara beti joateko erantzukizuna eragin izana, eskola bitartekarien lana, arazoarekiko sentsibilizazioa, herri mahaiak sortzea, hainbat esperientzia jakiteko aukera ematea ...

Balio gutxien eman dieten Programaren alderdiak

- %48k arazoa konpontzeko ezarritako epeak balioesten ditu gutxien, jokabideak denboran asko luzatzen direlakoan.
- %21,7k uste du DBHko ikasleek eragiten dutela arazorik handiena, erakundeek eragindako presioengatik baina batere motibaziorik gabe Ikastetxera itzultzen direnean.
- %17,4k agertzen du ez daudela ados Haur Hezkuntzan egiten ari den esku-hartzearekin, gehiago eskatu beharko litzatekeelakoan.
- Beste ekarpen eta kritika batzuk ere jasotzen dira: falten justifikaziorako prozedura bat ezarri beharra, Fiskaltza eta Aldundira heltzen diren kasuen berri ez ematea, legea ez betearaztea, konpondu gabeko kasuen kopurua ...

Sartu beharreko hobekuntzak eta beste iradokizun batzuk

- %30,7k asmo ezberdinak eskaintzen ditu erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko xedez:
 - EISE eta SSBetako lagunen izena eta telefonoa daramatzan zerrenda bat egitea Ikastetxeei eskaintzeko.
 - SSB eta beste Udal Zerbitzuak Ikastetxeei aurkeztea, baita Aldundiko Haur Zerbitzu espezializatuak ere.
 - Udal Zerbitzuen barruan erreferentziako lagunak ezartzea Ikastetxeentat.
- Halaber, %30,7k uste du Ikastetxeak baliabidez hornitu beharko liratekeela ikasle absentistekin lan egiteko xedez, eta HPBkotzat jo beharko liratekeela. Baliabideok lagundu egingo lukete Programan ezarritako protokolo baldintza guztiak betetzen, curriculum alternatiboak sortzen, norbanako erantzunak ematen ...
- Gainera, honako erantzunok jasotzen dira: falten justifikazioa protokolizatu beharra,

derrigorrezko eskolatzeko adina lau urte izatea, instantzia bakoitzak bidaltzen zaizkion kasuekin egiten dituen gauzen berri ematea idatziz ...

5.2. IKASTETXEETAKO ZUZENDARITZA TALDEEN EKARPENAK

Azaldu berri den bezala, Ikuskaritza Lurralde Burutzaren aldetik maiatzaren 24an bidali zieten gutun bana absentismoko erregistroren bat izan zuten 123 Ikastetxeetako zuzendaritza taldeei, eta bertan eskatzen zen II. Eranskinean jasotzen den ekarpen orria betetzea. Jarraian erantzun zuten 72 Ikastetxeek (%58,5) emandako iritziak jasotzen dira:

Ikastetxeak egindako segimenduan sartu beharreko hobekuntzak

- %53k uste du Ikastetxetik ahal den guztia egiten dutela, Programan ezarritako urrats guztiak betetzen dituztela eta gehiagorik egiterik ez daukatela deritzo. Zerean ikusten dute arazoa: nola lortu familiek Ikastetxean jasotzen den hezkuntza balioestea, promozio eta geroko lanposturako.
- %26,4k adierazten du hobetu litekeela Ikastetxeak eskola absentismoaz egiten duen kontrola, irakasleen esku-hartzea sendotuz, tutoreena batik bat, ezarritako epeak errespetatuz, arazoa aurkitu orduko jokatzuz, familia eta elkarte ijitoekiko harremanak indartuz, Ikastetxe batetik beste batera iragaten diren ikasleak hobeto kontrolatuz ...
- %6,9k ordu kreditu luzeagoa beharko luketela deritzote familiekiko komunikabideak arindu eta kontrola hobetzeko. Bestalde, ikasle absentisten laguntzarako orduak luzatu beharko liratekeela.
- Beste hobetzeko mekanismo batzuk ere azaltzen dira: gizarte-hezkuntzako txostenak laburrago egitea eta lehenago eramatea, sistema informatikoak erabiltzea Ordezkaritza eta beste erakundeekiko komunikabideak arintzeko xedez, faltak justifikatzeko sistema berrikustea ...

Programaren aplikazioan sartu beharreko hobekuntzak Ordezkaritza eta/edo Hezkuntza Sailaren aldetik

- %29,2k uste du familiei Oinarrizko Hezkuntza derrigorrezkoa dela “instituzionalki” jakinaraztea garrantzitsua dela, eurei igortzen zaizkien gutunen bidez; gainera, horiek ere laguntza izango dira Ikastetxeentzat, ikasturtearen hasierako kanpainak, heziketako programa osagarriak eta familiei orenen berri ematea ...
- %22,2k adierazten du zorrotz eta sendoago beharko litzatekeela esku hartu absentismo jarraituko kasuetan. Horretarako zehatz eskatzen da Hezkuntza Sailatik eta/edo Lurralde Ordezkaritzaren aldetik harreman bat ezartzea Erakunde guztien artean parte-hartzea eta kontrola bermatzeko asmoz.
- %19,4k ez dakar hobetzeko osagaririk Hezkuntza Sailak eta/edo Lurralde Ordezkaritzak egindako esku-hartzea ondo dagoela balioesteagatik.

- %15,3k adierazten du Ikastetxeak baliabidez hornitu beharra dagoela bertara itzultzean ikasleekin lan egiteko, edota eskolatzeko normalizaturako beste alternatibarik eskaintzeko.
- %11,1ek eskatzen du Ikastetxeek bidalitako informazioa jaso ostean eman diren urratsen berri gehiago euri ematea.
- Hona hemen iradokitzen dituzten beste hobekuntza batzuk: faltan %10 justifikatu gabe izanez gero, absentismotzat hartzea, Haur Hezkuntzako etapatik eraginkorrago esku hartzea, arau argiagoak ematea absentismoa kontrolatzeko ferietako salerosleen eta aldi baterako langileen seme-alabetan, Ikastetxeei jarraibideak eskaintzea beken kudeaketari ekiteko xedez (ikasketa eta jantokirako laguntzak) alumnado ikasle absentistaren kasuan...

Sartuta dauden beste Erakundeek egindako segimenduan sartu beharreko hobekuntzak

- %33,3k agertzen du esku-hartze arin, zuzen eta eraginkorragoa behar dela. Halaber, seme-alaben eskolatzeko bermatzeko eginkizuna betetzen ez duten familiekin sendago jokatu beharra azaltzen da. Zehatzago, gizarte laguntza jasotzen duten haiei dagokionez, eskatzen da sartzeko hitzarmenaren segimendu zurruna egiteko, bete ez izanaren ondorio argiak edukita. Era berean, eskola orduetan kalean dabiltzan adingabeen kontrola eskatzen dute.
- %26,4k orain ere baderitzo aurreko urteetan bezalaxe, Erakunde horiek emandako urratsen berri eman behar zaiela Ikastetxeei.
- %16,7k ez dakar hobetzeko osagairik, haietara bideratutako kasuetan ongi erantzun dutela argudiatuz.
- Hona hemen Ikastetxeen iritziz sartu beharreko beste hobekuntza batzuk: Erakunde horiek Ikastetxeek ezarritako neurriei lagundu behar diete, protokoloa bete behar dute oraindik egin ez dutenek, ikaslearekin esku hartzea udalerriko erroldan egon ez arren, kasuak euren gain hartu dituzten langileak aldatzea ahal den neurrian saihestea, hezkuntza-, leku- eta lurralde- administrazioak elkarrekin koordinatzea, "leihatila bakarra" delako irizpidea aplikatzea eragina zein saili dagokion ere, talde zehatz batzuk (etorkinak, ijitoak,...) ordezkatzeko dituzten elkarteekin batera lan egitea.

Beste iradokizun batzuk

- %61,1k zuri uzten dute atal hau, eta horrela ulertzen da horri buruz duten iritzia beste ataletan islatu ahal izan dutela.
- Betetzen dutenek behin eta berriro azpimarratzen dituzte lehenago jasotako alderdiak. Besteak beste hauek nabarmentzen dira sarritasuna dela eta: Erakundeen arteko ko-

ordinazioa hobetu beharra, erantzun sendoagoak (isunak erabili...), kontrola eta jokatzea Haur Hezkuntza aldiak geroztik sartzea, udaltzaintza edo ertzaintzaren eskuhartze handiagoa kasuen arabera, baliabide gehiago jartzea Ikastetxeen eskura ikasle absentistak itzultzen direnean, euren laguntzeko, eskolatzeko beste aukerarik azaltzea (oraingoak ez dira aski), atzeman orduko jokatzea, Iniciativa Gitanaren lankidetzaren beharra aurten eskurik hartu ez duen Ikastetxeetan ...

5.3. GIZARTE ZERBITZUEN ETA BESTE UDAL ZERBITZU BATZUEN EKARPENAK

EUDELetik Gizarte Zerbitzu eta hezkuntzako udal zerbitzuetara igorri zen II. Eranskinetan jasotzen den ekarpen orria, eta 45 udalerritako zerbitzuek bete zuten; horrek adierazten du Bizkaiko biztanle guztien %75. Jarraian azaltzen dira iritziak.

OGZek edo beste Udal Zerbitzu batzuek egindako segimenduan sartu beharreko hobekuntzak

- Aldizkako koordinazioa hobetzea gizarteko udal zerbitzuen, hezkuntza Ikastetxeen eta erakundeen artean eta bizirik eustea euren arteko harremanari lan egitasmo baten inguruan, elkarrekin batera eginda, Programan aurreikusten den gizarte-hezkuntzako txostena erabiliz, epeak arinduz eta informazioaren jarria eraginez.
- Prebentzioan lan egitea, kasuak kroniko bilakatzea saihestuz.
- Asti luzeagoa erabiltzeko aukera, lagundu eta kasuak balioesteko, baita euren gain hartutako jokatzea gainbegiratu eta segitzeko ere.
- Koordinazioko egitura bat sortzeko aukera, zeinetan parte hartzen baitute sartuta dauden eragileak; hantxetik programa hori kudeatuko da eta, hala balegokio, Haur Zerbitzura bideratutako egoerak.

Programa Udalen aldetik aplikatzean sartu beharreko hobekuntzak

- Udal arlo en arteko elkarrekiko lanean sakontzea gaian eta jokatzeko protokoloaren segimendua gaitasuna dutela, eta absentismoaren zergatiak murrizteko estrategiak hedatzea.
- Hobeki balioetsi eta esku hartzeko baliabideak hobetzea absentismo gaitetan.
- Udaltzaintzaren esku-hartzean aurreratzea eskola orduetan ikastetxetik kanpo dauden adingabeen suposizioetan.

Sartuta dauden beste Erakundeek (Hezkuntza eta Aldundia) egindako se-gimenduan sartu beharreko hobekuntzak

- Esku-hartze iraunkorretan aurrera egitea eta horiek ez daitezela buka hurrengo parte hartzea dagokionari kasua igortzean. Informazioa bihurtzea bultzatzea.
- Baliabide (material eta gizatiarrak) eta estrategiak hedatzea absentismoaren zioak mu-rrizte aldera Ikastetxeetatik. Adibide gisa: Ikastetxe batzuk Gizarte Langilez hornitzea absentistekin lan egin dezaten, eskola laguntza bultzatzea denbora luzez eskolara joan gabe ibili diren adingabeentzat.
- Jokabideko protokoloaren ezagueran eta aurreikusitako epeak betetzean hobetzea, baita absentismoko erregistro orriak bidaltzean ere. Halaber, adingabe absentistekin lan egi-teko egitasmoei gaurkotu eta artxibatuta eustea, eta proiektuok kontuan eduki behar di-ra hurrengo ikasturteetan.
- Adingabe absentisteki hasiera-hasieratik laguntzen aurreratzea hezkuntzako lehen etape-tatik eta absentismoko kasuak aurkitzea arintzea.
- Nerabeekin lan egitea indartzea, prestakuntza-laneko ibilbideak sartuz, egoera bakoitza-ri egokituta.
- Ikastetxea familietara hurbiltzea sustatzea, topaketarako gune eta programa espezifiko-ak sartuz, ikasteko gogoia eragiteko ikasle zein familietan.
- Famili zein lan bizitzan adiskidetzeko neurriak sartzea (Ikastetxeetako ordutegia zabalt-zea, lan baldintzak hobetzea ...).
- Hezteko eta sentsibilizatzeko ekintzak bultzatzea gai honekin zerikusia duten profesio-nal guztiei zuzenduta.
- Zerbitzuekiko lankidetzeta eta koordinazioa hobetzea haurtzaroari dagokiolarik batez ere.

Beste iradokizun batzuk

- Gizarte-hezkuntza txostenean jasotako itemetariko baten bat berrukitzea, zeren eta ez baitituzte kontenplazten aski ongi alderdi gakoak, hala nola buru osasuna, eta prota-gonismo gehiegi ematen diete ez ezinbesteko diren batzuei.
- Ahaleginak egitea txostenak formato elektronikoan egin daitezzen geroago erabiltzeko xedez.
- Koordinazioa hobetzea ondorio hobeak lor daitezzen ijitoekin lan egiten duten enti-tateekin.

- Absentismo onartu edo estalia daramaten kasuak erregulatzea.
- Zigorrak jartzeko aukera ikertzea Hautzaro eta Nerabezaroarentzako Babespeneko Legearen esparruan.

5.4. GIZARTE EKINTZA SAILEKO HAUR ZERBITZUAREN EKAR- PENAK (BIZKAIKO FORU ALDUNDIA)

Haur Zerbitzuko teknikariek, Harrera, Balioespen eta Orientabideko Sekziokoek zehazki –hainabat eragile sozialetatik datozen haur desbabes egoera posiblea balioestea dagokie hasiera batean–, honako ekarpen hauek eskaintzen dituzte:

Haur zerbitzuak egin behar duten segimenduan sartu beharreko hobekuntzak

- Ikastetxei eta baita Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei ere, azaltzea eskuduntza maila, erantzukizunak, jarduteko lerroak, baliabideak, etab., eta haur babestean daude eta eskuduntza erantzukizuneko mailan nola gizarte zerbitzuetan hala espezializatu.
- Kasuak bereiztea zeinen arazoak eskola absentismoan oinarritzen baitira haur desbabesarekin erlazioa duten beste indikatzaile batzu ere badaudelarik; horiek berekin batera dakarte adingabeentzako babes neurriak hartzea.
- Gailu bat diseinatzea datuak jasotzeko euskarri informatiko baten bidez.
- Sartua dauden Erakundeen arteko koordinaziorako bideak hobetzea.

Foru Aldundiaren aldetik Programa hori aplikatzeko sartu beharreko hobekuntzak

- Programa sendotu eta berari jarraipena ematea erakundeen arteko hainbat hitzarmenen bidez.
- Programan onartu eta eman ez diren konpromisoak bultzatzea, hala nola haur babesarekin erlazonaturik dauden profesionalen ekintak sustatzea.
- Ekintzak bultzatzea bai prestakuntzan, bai Ikastetxeetan, Oinarrizko Gizarte zerbitzuetan, bai programa hedatzeko estrategian.

Sartuta dauden beste Erakundeek (Hezkuntza eta Udalak) egindako segimenduan sartu beharreko hobekuntzak

- Eskolatzeko programa osagarriak zabaldu eta hobetzea, eta baita curriculumeko dibertsifikaziokoak ere; horiek haur eta nerabe bakoitzaren errealitateari egokitzen zaiz-

kio, eta bereziki laguntzen zaie portaera absentista eduki dutenei.

- Ikastetxe eta Oinarrizko Gizarte zerbitzuen arteko ezagutza-hurbitzea hobetzea, ko-ordinazioa sendotzeko xedez.
- Prebenitu eta aurkitzearen garrantziaren kontzientzia hartu beharra, eta absentismoa da, batzuetan, osagai erabakiorra eta beste mota batzuetako arazoak topa ditzake familiaren esparruan eta/edo pertsonalean; berehalako esku-hartze batek konpon ditzake.
- Derrigorrezko mailetan eskolaratzea sartzea balioestea oinarrizko osagai nabari gisa Sartzeko Hitzarmenetan.

6. ONDORIOAK

- Ikastetxera sarri-sarri eta sendo ez joateak zailtasun handia eragiten du ikasleen garen pertsonal, sozial eta akademikorako; izan ere luzaroan marjinazio eta gizarte bazterte egoerak sortzen ditu. Horrez gain, azken hiru urteotan, praktika onen azterketak eta ikerketa alderatuek argi erakutsi dute eskola absentismoa dabilela beste arazoan “detektatzaile” on gisa, hala nola tratu txarra, berdinaren arteko eraso, osasun arazoa ...
- Ikastetxeetako zuzendaritza taldeen iritziei dagokienez, eskola absentismoaren kontrol eta segimendurako ezarritako prozedurari buruz, honako ondorio hauek jasotzen dira:
 - Erakundearen arteko koordinazioa da gehien balioesten dena eta jokabideko protokoloa daukan Programa bat egotea; horrek uzten du jakiten zer egiten duen kontrolatzeko eta eskola absentismoaren segimendua egiteko.
 - Ostera, arazoa konpontzeko ezarritako epeak gutxien balioesten dira, zeren eta us-te baitute ekintzak oso luzatzen direla denboraren poderioz. Halaber, ez daude ados Haur Hezkuntzan dagoen esku-hartzearekin, eta horri buruz eskatzaileagoak izan beharko luketela deritzate.
- Ikastetxeetako zuzendaritza taldeen iritziei dagikienez, hona hemen ondorioak:
 - Ikastetxeek egindako segimenduan sartu beharrerko hobekuntzei dagokienez hurrengo datuok daude:
 - Zuzendaritza Taldeen %53k deritzote Ikastetxetik ahal dezaketen guztia egiten dutela. Euren iritziz, arazoa berbera da oraindik ere: nola lortu Ikastetxean jasotzen den hezkuntza familiek aintzat hartzea seme-alabak gero lan munduan sartu ahal izan daitezen..
 - Halarik ere, %26,4k agertzen dute Ikastetxearen esku-hartzea hobetu egin litekeela irakasleen parte-hartze handiago baten bidez, tutoreena batik bat,

arazoa atzeman orduko jokatzuz eta ezarritako epeak errespetatuz, familia eta Elkarte Ijitoekiko harremanak sendotuz ...

- Era berean uste dute orduko kredito handiagoa behar litzatekeela ikasle absentisten segimendu sakonago bat eramateko, baita ikasle horiek behar dituzten laguntza orduak areagotzeko ere. Hona hemen hobetzeko beste osagai batzuk: sistema informatikoak erabiltzea Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzarekiko komunikazioa azkertzeko, hutsegiteen justifikazioko sistema berrikustea...
- Ordezkaritza eta/edo Hezkuntza Sailaren aldetik Programa aplikatzeko sartu beharreko hobekuntzei dagokienez honako hau uste dute:
 - Garrantzitsua litzateke Hezkuntza Sailak familiei gutun bana bidaltzea Oinarrizko Irakaskuntza derrigorrezkoa dela jakinarazteko xedez, kanpainak egitea eta heziketa eta informazio programak martxan jartzea familientzat.
 - Sendoago beharko litzateke esku hartu absentismo jarraituko kasuetan. Horretarako Hezkuntza Sailari eskatzen zaio beste Erakundeak ere kontrolan sartzeko zaintzea.
 - Ikastetxeak baliabidez hornitu behar litzateke ikasle absentistekin programa diferentzialak lantzeko.
 - Halaber uste dute Hezkuntza Sailak igortzen dioten informazioaren aurrean daramatzan jokabideen berri jakinarazi beharko litzatekeela Ikastetxeei, Haur Hezkuntzatik eraginkorrago behar litzatekeela esku hartu, eta Ikastetxeei jarraibideak eskaini beken kudeaketari buruz ikasle absentisten edota Ikastetxera joateari uzten diotenen kasuan.
- Hona hemen euren ustez sartuta dauden beste Erakundeek sartu behar lituzketen hobekuntzak:
 - Esku-hartze arina, zuzen eta eraginkorragoak. Familiekin sendoago jokatzeko eskatzen da, sartzeko hitzarmena bete ez izanak ondorioak edukitzea eta eskola orduetan kalean dabilzan adingabeak kontrolatzeko.
 - Aurreko urteetan bezala, emandako urratsen berri Ikastetxeei jakinaraztea eskatzen dute.
 - Koordinazioa indartu behar litzateke Erakundeen artean hartu beharreko neurri mota berean lagundu edo sartu daitezen.
- Udal zerbitzuetako profesionalen iritizari dagokionez, honako ondorio hauek jasotzen dira:

- OGZek edo beste Udal Zerbitzu batzuek egindako segimenduan sartu beharreko hobekuntzak:
 - Programan parte hartzen duten erakundeetako zerbitzu guztien arteko koordinazioa hobetzea, koordinazioko egiturak sortuz, hala balegokio.
 - Prebentzioan lan egitea, kasuen kronifikazioa saihestuz.
 - Arinago erabiltzea eredu normalizatu eta programan jasoak, eta baita ezarritako epeak hobeto betetzea ere.
- Udalen aldetik Programa horretan aplikatzean sartu beharreko hobekuntzak
 - Elkarrekin egiten den lanean sakontzea materian eta jokabideko protokoloaren segimenduan eskumenak dituzten udal arloen artean.
 - Absentismoaren zioak murrizteko estrategia hedatzea.
- Sartuta dauden beste Erakundeek (Hezkuntza eta Aldundia) egindako segimenduan sartu beharreko hobekuntza
 - Esku-hartzeen jarraipenean aurrera egitea eta horiek ez daitezela amairu hurrengo esku-hartzea dagokion lagunari kasua igortzeaz.
 - Udal zerbitzuei informazioa bihurtzea hedatzea kasuak bideratzen zaizkien erakundeek burututako jokabideei buruz.
 - Hasieratik ekitea adingabe absentistek laguntzen jarraitzeari hezkuntzako lehen etapetatik eta absentismo kasuak aurkitzeko arinago jokatzeko.
 - Nerabeekin egiten den lana sendotzea, prestakuntza-laneko ibilbideak sartuz, egoera bakoitzari egokituta.
 - Eskola laguntzak sustatzea eritmo akademikoa berreskuratzeko, sartzeko/birgizarteratzeko protokoloak denboraldi luzez eskolaratu gabe dabitzan adingabeentzako ikasgelan.
 - Programa espezifikoa sartzea ikasleetan zein familietan ikasteko zioa bultzatu.
 - Haurtzaroko zerbitzuekiko lankidetzaren eta koordinazioa hobetzea.
- Haurtzaroko zerbitzuko profesionalek iritziari dagokionez, hurrengo ondorioak jasotzen dira:

- Hautzaroko zerbitzuak egindako segimenduan sartu beharreko hobekuntzak
 - Topaketa foroak bultzatzea hiru Erakundeen artean errealitate bakoitza ongi ezagutzeko, baita gaitasun maila ere.
 - Koordinaziorako bideak sustatzea Programan esku hartzen duten erakundeen artean eraginkorrak.
- Foru Aldundiaren aldetik Programa hori aplikatzean sartu beharreko hobekuntzak
 - Programan onartuta dauden eta gertatu ez diren konpromisoak bultzatzea, haur babesarekin zerikusia duten profesionalentzako prestakuntza ekintzak bultzatzea, besteak beste.
 - Ekintzak bultzatzea bai prestakuntzarako Ikastetxe eta Oinarrizko Gizarte zerbitzuekin, bai programa hedatzeko estrategiarekin.
- Sartuta dauden beste Erakundeek (Hezkuntza eta Udalak) egindako segimenduan sartu beharreko hobekuntzak
 - Hezkuntza erantzunak, portaera absentistarako larrietan batez ere, egokia ote denetz aztertzea, dibertsitate handiagoa eskainiz antolakuntzako alderdietan zein edukian bakoitzaren premiei erantzuteko xedez, hua da, eskola erakargarria izan dadila.
 - Eskola bitartekarien zeregin nabaria azpimarratzea eskola absentismo kasuetan eskolar, eta horrek argi agertzen du Ikastetxe eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arteko lankidetzaren premia.
 - Profesional guztiei absentismoaren arazoa helarazi beharra prebenitzeko osagai gisa, eta ez bakarrik eskola porrotekoa baita gizarte bazterketakoa ere.
 - Arautegi egokia garatzea esku-hartze eraginkorragoa lortzeko absentismo larriko kasuetan, eta horrek zigor zehatzak ekarriko ditu berekin betezerik eza gertatzen denean.
- Bizkaian 2005-2006 ikasturtean egon den arazo horren dimentsioari dagokionez hona hemen eskainitako ondorioak:
 - Portaera absentista eta deseskolatua duten ikasleen kopuru osoa 1.135 da (Oinarrizko Irakaskuntzako ikasleen %1,3). Kopuru hori gutxiagotu egin da pixka bat (1.133) iragan ikasturtearen aldean.

- Ikastetxe publikoetan, Lehen Hezkuntzako ikasleen %1,8k eta DBHkoen %2,7ek portaera absentista izan dute.
 - Ikastetxe pribatu itunduetan, portaera hori izan duten ikasleak %0,2 dira Lehen Hezkuntzan eta %0,5 DBHn.
 - Lehen Hezkuntzan ikasturtean zehar metatu den portaera absentista aztertzen bada, portzentajerik handiena %25eko bitartean dago. Hau da, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe publikoetan absentisten %84,9k galdutako eskola egunek eta Ikastetxe pribatu itunduetako %83k ikasturtean zehar ez dute gainditu urteko eskola denboraldiaren osoaren %25.
 - DBHn, absentismoaren portzentajerik handiena, %65,4 Ikastetxe publikoetan eta %49,5 Ikastetxe pribatu itunduetako, ere biltzen da %25erainoko bitartean. Hala ere, portzentaje hau txikiagoa da Lehen Hezkuntzako datuen aldean. Alderantziz, nabari areagotzen da absentisten kopurua egun galduen portzentajerik handienaren tartean (%75 baino gehiago), eta %19raino iristen da Ikastetxe publikoetan eta %15,6ra Ikastetxe pribatu itunduetan deseskolatuen datuak erantsiz gero.
 - “Absentismo zuzendu”ari dagokionez, kontzeptu hau apiril, maiatz eta ekain hilabeteetan zehar gutxienez erregistrorik ez gisa definitzen dela ulerturik, Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten %42,4 gertatu da eta DBHko %44; eta Ikastetxe pribatu itunduetan %52,5 Lehenean eta DBHko %34,6. Azken datuok arazoaren dimentsio zehatzago baten aurrean kokatzen dituzte. Horrela ikasturtean zehar mantentzeagatik larrirentzat jotzen den absentismoak Lehen Hezkuntzako 283 ikasleri (%0,5) eta DBHko 308ri (%0,8) eragiten die.
 - Ikastetxe publikoetan deseskolatutako ikasleei dagokienez %0,1 izan dira Lehen Hezkuntzan eta %0,3 DBHn. Ikastetxe pribatu itunduetan deseskolatzea %0,02 izan da Lehen Hezkuntzan eta %0,07 DBHn.
 - HaurHezkuntzan, Ikastetxe publikoetan ikasleen %1,76k portaera absentista izan dute eta %0,10ek Ikastetxe pribatu itunduetan.
- Portaera absentista eta deseskolatzea handiagoak dira Ikastetxe publikoetan (Lehen Hezkuntzan %1,9 eta DBHn %3,07) Ikastetxe pribatu itunduetan baino. Hauek Lehen Hezkuntzan %0,23 dute eta DBHn %0,55. Alde horrek erlazio estua dauka biztanleria baztetuaren portzentajearekin alderdi ekonomiko, familiar, sozial edo kulturean eta beste Ikastetxe batzuetan edo besteetan eskolatzen dira oro har gehiago direlarik sare publikoetan, eta nolnahi ere desberdina bakoitza kokatzen den eskualdearen arabera. Izan ere, ikasle absentistak ez dira proportzionalki banatzen Lurralde osoan zehar, ez-pada bi eskualdek (3 eta 4 zk. Ikuskaritza eskualdeak) bereganatzen dute ikasle horien %94.
- Absentismo eta/edo deseskolatze arazoek eragindako Ikastetxeak Ikastetxe publikoen %36,9 izan dira eta pribatu itunduen %21,9. Portzentajea eskaintzeko xedez 6 ikasle ab-

sentista Ikastetxe bakoitzeko irizpidea baldin badarabilgu, orduan Ikastetxe eraginen portzentajea Ikastetxe publikoen %16,3 eta pribatu itunduen %3,6 izango da. Ikastetxe-
ok absentismo eta deseskolatzearen mapa zehatz bat marrazten dute lurralde eta eskual-
deka:

- Bizkaian Ikuskaritzako 3 eta 4 eskualdeetan jasaten dute eraginik handiena. Zehat-
zago Bilboko zenbait auzune jakinetan (Otxarkoaga, Casco Viejo, San Francisco,
Zabala...), eta Basauri, Barakaldo, Portugalete eta Sestao udalerrietako auzune bat-
zuetan.
- Badago beste irizpide zorrotzago bat, ikasleen %20 edo gehiago portaera absentista
eta/edo deseskolatuarekin dituen Ikastetxe eragintzat jotzen duena, eta horrexek gara-
matza 10 Ikastetxe publikotara eta 2 Ikastetxe pribatu itundutara, denak lehenago aipa-
tutako eskualdeei dagozkielarik.
- Azkenik, agertu beharra dago arazo horren dimentsioa definitzeko asmoz erabilitako
portzentajeek Hezkuntza Sistemako proportzio txiki bati eragiten badiote ere, zera ez
dugula ahantzi behar:
 - 1º Eragina jasan duten ikasleak 1.135 direla kopuru absolututan, 6 eta 16 urte bitarteko-
ak, eta gizarteak hezkuntzarako eskubidea bermatzeko ezarri duen mekanismoa dela
euren derrigorrezko eskolatzea; dena delarik, ez da benetan erabiltzen eskubide hori.
 - 2º Prebentzioz eta sintomatikoki ez jokatzeko, familien gainean esku hartzeko Botere
Publikoek daukaten ardura ez betetzea adierazteaz gainera, geroago gizartean baz-
tertuta geratzea eragiten dutenetako kausa bat ez kentzea ere badakar berekin.

7. PROPOSAMENAK

Batzordeak, sartuta dauden profesionalen ekarpenak, gure inguruan eta beste errealitate batzuetan aplikatzen diren irtenbideak eta prozesuaren balioespina bera kontuan dauzkalarik, beharrezkotzat jotzen du hurrengo hobetzeko proposamenak aurkeztea, aurreko ikasturteko txostenean ia guztiak azaldu zirela aintzat harturik.

- Aurreko ikasturtean bezalaxe, ikastetxeak animatzen ditugu bertaratze kontrol sakona burutzeko ahaleginari eustera, eta posiblea izanez gero, baita areagotzera ere. Kontrol hori ez da jokabide estigmatizatzailetzat hartu behar lehen pausotzat baizik ikasle eraginentzat izan litekeen arrisku akademiko, pertsonal edo sozialeko egoera batean jokatu ahal izateko. Ildo horretan, Batzordeak aitortu egiten die irakasleei, eta oro har eskola bertaratze egoeraren kontrolean ardura duten gizarte eragileei, zeregin horretan sendo eta gogoz jardun izana.
- Arazo hori zabala dela eta, (oso txikia kuantitatiboki Hezkuntza Sistemari dagokionez oro har, baina larria bete gabeko oinarritzko eskubidearen garrantziagatik), esku-hartze bereizi

bati ekin beharko litzaioke sartuta dauden Erakunde guztien aldetik, eta horrexek kontenplatu beharko lituzke eraginik handiena jasan duten eskualde eta Ikastetxeak alde batetik, eta kasuak banaka aztertu bestetik. Edozein egoeratan lehentasuna eman behar zaie adinik txikienak dituztenei eta absentismorik larrienari, ikasturte osoan zehar dirauenari, eta esku-hartzea eta segimendua bermatuak egongo dira harik eta sartuta dauden haur eta nerabeen eskola egoera normaldu arte.

- Aurrekoarekin batera proposamen bat dago datuak jasotzea bultzatzeko xedez, absentismo eta deseskolatzeko egoera bakoitzaren eboluzio pertsonalizatuaren berri erraz izateko, baita garatutako esku-hartzeena ere. Horrek lagundu egingo liguke kasuko ikerketarantz aurreratzen.
- “Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa” delakoan sartuta dauden hiru Erakundeek sustatuko dute sentibilizazioko kanpainak martxan jartzea, jendearentzat oro har eta derrigorrezko eskolatzeko adineko seme-alabak dituzten familientzat zehazki; horietan islatzen da potentzial aldatzailea, hezkuntzak duen gizarte bazterketaren aurka.
- Absentismo mota bakoitzaren zergatiak aztertzeko zereginetan sakontu behar litzateke, zio horiexen arabera neurri zuzentzaileak eraginkorrenak proposatzeko xedez. Neurriok hainbat jasotzaile izango dituzte, jakina, hezkuntza aldiei jarraiki. Lehen Hezkuntzan familiak izango dira batik bat, baina DBHn baita ikasleak berak ere, eta dagozkien ikastetxeek ere hartuko dute esku.
- Batzordeak berriro ere balioestu ditu oso positiboki eragile eta Erakundeek garatutako ahalegianak, harremana eta esku-hartze koordinatua hobetzeko xedez programa aplikatu deneko hirugarren ikasturte honetan zehar; halarik ere, oraindik ere ekin eta ekin behar zaio esku-hartze ildoan dabiltzan Erakunde zein instantzia guztiek oso gogotik jokabideen notifikazioari, ofizioko erregistroz eta programaren barruan dauden protokoloen epeak errespetatuz, absentismo eta/edo deseskolatze kasuak igorri dizkieten entitateei, eskatu dieten norabidean jokatzetik ez daukatenean ere.

Lerro honetan, eskola absentismo eta deseskolatzeko tratamenduan jarduten duen entitate edo erakunde bakoitzean erregistro bakar bat sortzea eta gero eustea iradokitzen da (gai honi dagokion dokumentazio ofizial osoaren sarrera eta irteera erregistratzen dituen leku eta/edo laguntzat jota), zeren ulertzen baita horrek hobetu dezakeela komunikabideko kontrola eta bertan dauden zenbait arazoren konponketa.

- Hona hemen adingabe absentista edo deseskolatuei laguntzeko xedez esku hartzen duten parteen artean komunikabidea hobetzeko modu bat: Ikastetxeak, Hezkuntza Ikuskaritza, Berritzegunak eta Udal zerbitzuak, baita banako kasu bakoitzean esku-hartze zehatzen segimendua ere hobetzekoak “Absentismoko tokian tokiko mahaiak” dira. Zenbait udalerritan jarri den esperientzia horrek lehenago azaldutakoa berresten du, eta beraz, Batzordeak absentismo edo deseskolatze arazoak dituzten udalerrietan “Mahai” horiek sortzea bultzatu behar delakoan dago.
- Beharrezkoa da aurreko ikasturtean Adingabeen Fiskaltzarekin Hezkuntza Lurralde Or-

- dezkaritzaren aldetik egin ziren topaketak jarraitzea. Aurtengo topketetan txosten honen datuak jakinaraziko dira, eta Fiskaltzara edo dagokion instantzia judizialera bideratu den kasu bakoitzaren banako eboluzioa aztertuko da batera.
- Berriro ere, Batzorde horrek ekin eta ekin behar dio Lurrade Ordezkaritzatik edo Hezkuntza Saileko beste instantzia batzuen aldetik irizpideak zehazteari ikasleen artean absentismoaren indize handia duten ikastetxeak irizpide diferentzialekin tratatu ditzaten LPZri, ikastetxe horietan langileak izendatzeari, heziketa proposamenei, hornikuntza ekonomikoari... dagokienez. Horrela aurreikusten du maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzako Lege Organikoak, eta 81.4 artikulua zera xedatzen du *“las Administraciones educativas dotarán a los centros públicos y privados concertados de los recursos humanos y materiales necesarios para compensar la situación de los alumnos que tengan especiales dificultades para alcanzar los objetivos de la educación obligatoria, debido a sus condiciones sociales.* Berdintsu Euskal Eskola Publikoko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, eta 10. artikulua jasotzen du: *“para hacer efectivo el principio de igualdad y de supresión de las situaciones de discriminación existentes, en los Presupuestos Generales de la CAPV de cada año se recogerán los créditos que hayan de integrarse en un fondo de compensación que posibilite la mejor distribución de los recursos”.* Halako irizpide diferentzialek loturik egon behar dute ikasleei laguntzeko egitasmo eta/edo planak gauzatzeari. Zehatzago, eta lehen urrats gisa, absentismoko indizea %20ren gainetik duten ikastetxeak lehenestea proposatzen da; egoera horretan ditugu **10 Ikastetxe publiko eta 2 Ikastetxe pribatu itundu.**
 - Bizkaiko Foru Aldunditik eta dagozkion Udaletatik, gizarte esku-hartzeko arloan eskuduntzak banatzeko orduan bakoitzari dagokionez, jokabide neurri diferentzialak proposatzeko modua aztertu beharko dute eraginik handiena duten eskualdeetan (Hezkuntza Ikuskaritzako 3 eta 4. eskualdeetakoak) absentismo eta deseskolatzeko arazoak direla eta, Hezkuntza Administrazioak horri buruz burutzen diharduen jokabideak kaltetu gabe.
 - Batzorde horren ustez, dauden tresna legalak praktikan jarri behar lirateke, edo hala balegokio arategi egoki bat garatu eskumen autonomiko edo lokalekoa denaren arabera, esku-hartze eraginkorragoa lortze aldera absentismo larriko kasuetan, ikasleak egunero eskolaratzea azaldu, bultzatu eta errazten duten esku-hartze guztiak agortu ostean.
 - Azkenik eta joan den ikasturteetako txostenetan, Batzorde horrek nahitaezkoztat jotzen du deseskolatze eta eskola absentismoko arazoa konpontzeko programako erakunde sinatzaileek eta baita hainbat instantziak *“Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa”* horretan euren gain hartu zituzten neurri guztiak garatzea; orain arte praktikan jarri ez direnak bereziki. Eta batez ere eta oso gogoz arazo horri dagokionez sentsibilizatzeari atxikiak daudenak, komunikabideen bitartez eta adingabe absentistek laguntzeko neurri bereziak martxan jarritz. Horiei lotua dago gizarte eta kultur egoera baztertzaila eta sei urtetik beherako adingabeak eskolatzeko helburuei lotuak daudenak eta familien eskariak lehenesteko hiru urtetik beherako seme-alabak Haur Eskoletan sartzeko helburu dutenean.

8. ESKER ONAK

Hobekuntzako osagai kopuru handi samarra topatu den arren –txosten honetan zehar jasota–, eta eskola absentismo arazoak iraun badirauela ikusirik, hots, ez dela zorigaitzez oroz konpondu, egia da benetan segimenduko Batzorde horrek Programa aplikatzeko lehen hiru ikasturteotan zehar ahalegin txit handia ikusi ahal izan duela profesionalen, Erakundeen eta Ministerio Fiskalaren jarduera osoan, praktikan jartzeko xedez. Azpimarratu egin behar da bereziki absentismoa eta deseskolatzea aurkitzeko zereginetan egon den lan handia, lortutako informazioa erabiltzean, arazoari sektoreka ekiteko proposamenak martxan jartzean, edo eginkizunari etsi gabe eustean, eta idealak ez ziren egoeretan, eraginkortzat jotzen ziren irtenbideetatik. Halaber, nabarmentzen dira erakunde eta profesionalen koordinazioan emandako urrats garrantzitsuak.

Gure esker ona hementxetik.

Bilbon, 2007ko urtarrilaren 25ean

SEGIMENDUKO BATZORDEA

Hezkuntza Konpentsatzaileko Partzuergoa

- Susana Barrio

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila:

- Inmaculada Cereceda
- Almudena Gabiola
- Candi Hernández

Bizkaiko Foru Aldundia

- Alazne Madinabeitia
- Nagore Zubiaur

EUDEL

- Dorleta Goiburu
- Manuela González
- Iñaki Iglesias
- Javier Ruiz



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
IKERKETA SAILA
Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Delegación Territorial de Bizkaia

ERANSKINAK

I. ERANSKINA

IRITZIKO GALDE-SORTAK

**Eskola absentismoari buruzko Jardunaldian
jasoak, apirilaren 5ean**

“HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA”KO SEGIMENDUKO BATZORDEARI ZUZENDUTAKO EKARPENAK

APORTACIONES DIRIGIDAS A LA COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DEL “PROGRAMA PARA GARANTIZAR EL DERECHO A LA EDUCACIÓN”

1.- *Gebien baloratzen diren Programaren aspektuak:*

Aspectos del Programa más valorados:

2.- *Gutxien baloratzen diren Programaren aspektuak:*

Aspectos del Programa menos valorados:

3.- *Hobetu beharreko gauzak eta bestelako iradokizunik:*

Mejoras que se deberían introducir y otras sugerencias:

Mila esker zure laguntzagatik / Gracias por tu colaboración

Señala ezazu, arren, gurutze batez zein Erakunderi zagozkion edo non egiten duzun lan:

Por favor, señala con una cruz la Institución a la que perteneces o trabajas:

Ikastetxea / Hezkuntza laguntza zerbitzua
Centro escolar/ Servicio de apoyo educativo

Udala
Ayuntamiento

Aldundia
Diputación

II. ERANSKINA

Iritzia eman duten taldeak:

- Ikastetxeetako zuzendaritza taldeak
- OGZ eta beste Udal Zerbitzu batzuk
- BFAko Haur Zerbitzua

ZUZENDARITZA TALDEAREN EKARPENAK ESKOLA ABSENTISMO ETA DE- SESKOLATZEAREN AURKAKO JOKABIDEA HOBETZEKO XEDEZ.

Zuen iritzia jakin nahi dugu ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea segurtatzeko Ikuskaritzaren aldetik egituratu den **“Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea ezabatzea Bizkaiko Lurraldean”** programari buruz, seme-alabak Ikastetxera normalean joan daitezen behar besteko ardurarik agertzen ez duten familiak kontuan hartuta bereziki. Jarraian datozen galderei dagokienez, hirugarren ikasturte hone-tan zuen iritzia eta iradokizunak eman diezazkiguzuen eskatzen dizuegu:

1. Zertan behar litzateke hobetu Ikastetxeak burutu duen segimendua?
2. Zertan behar litzateke hobetu prozesu honen aplikazioa Lurralde Ordezkaritzaren eta/edo Hezkuntza Sailaren aldetik?
3. Zertan behar litzateke hobetu arazoan sartuak dauden beste Erakundeek (Udalak eta Aldundia) burutu duten segimendua?
4. Beste iradokizunik.

Mila esker zuen laguntzagatik

O.G.Z EDO BESTE UDAL ZERBITZUEN EKARPENAK ESKOLA ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEAREN AURKAKO JOKABIDEA HOBETZEKO XEDEZ.

Zuen iritzia jakin nahi dugu ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea segurtatzeko egituratu den “**Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea ezabatzea Bizkaiko Lurraldean**” programari buruz, seme-alabak ikastetxera normalean joan daitezen behar besteko ardurarik agertzen ez duten familiak kontuan hartuta bereziki. Jarraian datozen galderari dagokienez, hirugarren ikasturte honetan zeuen iritzi eta iradokizunak eman diezazkiguzuen eskatzen dizuegu:

1. Zertan behar litzateke hobetu O.G.Z. edo beste Udal Zerbitzuek burutu duten segimendua?
2. Zertan behar litzateke hobetu prozesu honen aplikazioa Udaletxearen aldetik?
3. Zertan behar litzateke hobetu arazoan sartuak dauden beste Erakundeek (Hezkuntza eta Aldundia) burutu duten segimendua?
4. Beste iradokizunik.

Mila esker zuen laguntzagatik

O.G.Z EDO BESTE UDAL ZERBITZUEN EKARPENAK ESKOLA ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEAREN AURKAKO JOKABIDEA HOBETZEKO XEDEZ.

Zuen iritzia jakin nahi dugu ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea segurtatzeko egituratu den **“Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea ezabatzea Bizkaiko Lurraldean”** programari buruz, seme-alabak Ikastetxera normalean joan daitezen behar besteko ardurarik agertzen ez duten familiak kontuan hartuta bereziki. Jarraian datozen galderei dagokienez, hirugarren ikasturte honetan zeuen iritzi eta iradokizunak eman diezazkiguzuen eskatzen dizuegu:

1. Zertan behar litzateke hobetu_O.G.Z. edo beste Udal Zerbitzuek burutu duten segimendua?
2. Zertan behar litzateke hobetu prozesu honen aplikazioa Udaletxearen aldetik?
3. Zertan behar litzateke hobetu arazoan sartuak dauden beste Erakundeek (Hezkuntza eta Aldundia) burutu duten segimendua?
4. Beste iradokizunik.

Mila esker zuen laguntzagatik